OLENTZERO, AZKEN JENTILA

Miren Diaz de Gereñu

Ipuin hau ez zen posible izango Jon, Maje eta Iñaki galtzagorri langileek egindako orrazketa eta euskararako itzulketa barik.
Arantzari bereziki eskertzen diot aurtengo Olentzeroan nire parte-hartzea eskatzean eskeini zidan aukera.
Audioaren ahotsak Miriam, Iñaki eta Gadearenak dira.
Eta siluetaren zein pasaia elurtuen argazkiak, Luisenak.

Eskoriatza, 2020ko abendua

Leari. Bere aitak benetako Olentzero Eskoriatzan ezagutu zuen; baita bere osabak, nire ilobek eta neure seme-alabek eurek ere.

Eskoriatzako aita, ama eta neska-mutiko guztientzako; gogoan, egun hauek ilusioz beteko dizkieten kontaeren trasmisioan laguntzea.

Ez da samurra ipuin hau kontatzen hastea; hainbeste dira Olentzeroren jatorria ulertzeko aipatu behar diren kontuak… Hemen doazkizuenak bera eta berarekin basoetan bizi direnen gaineko zertzelada xume batzuk baino ez dira.

Kontua da, orain dela urte batzuk, gau oso ilun batean, ekaitzak auzo eta kaleko argi guztiak itzungi zituela eta Eskoriatzako gazteok bidea argiztatzera joan gintzaizkiola Olentzerori, baserrietatik kalera iritsi eta zekarzkigun opariak eman ziezazkigun. Poliki-poliki, urtez urte, gero eta gazte gehiagok, pozez gainezka, herri gehiagotan, ohitura bera hartuaz joan ziren, herri guztietara garaiz irits zedin. Gizon xumearen handitasuna! Ikusiko duzue.

Ni ere banengoen Olentzeroren bila lehenengoz joan ziren gazte haien artean eta berarengandik zuzenean jaso ahal izan nituen kontu hauek guztiak. Pentsatu dut, agian, hain arraroa doan urte hau zuei kontatzeko une egokia izan daitekeela, nire nagusiek beheko suaren bueltan beste batzuk kontatzen zizkidaten moduan. Su honen goxotasunarekin eta nire maitasun guztiarekin kontakizun hau eskaintzen dizuet.

Horrela, ba, galdetu nionean Olentzerori nor ote zen, nondik ote zetorren, hau da aditu niona:

Ibarraundi museoa

Nire historia ulertu ahal izateko, denboran atzera egin behar dugu apur bat, basoan, dagoeneko existitzen ez diren pertsonaiak bizi ziren garaietara. Badakizu nor zen Basajaun?

Basajaun eta Basandere nire arbasoak ziren, basoko lehen biztanleak. Handiak ziren, oso handiak, ikaragarri handiak eta ikaragarri iletsuak, hanketaraino iristen zitzaien ilaje luziarekin. Lau pausotan Alabitatik Atxorrotxeraino iristen ziren.

Ekaitza zetorrenean, uluka ohartarazten zituzten artzainak, eta baita otsoak uxatu ere. Artzainek bazekiten hau, eta ardien arranak entzuten zituztenean, bazekiten Basajaun-eta inguruan zebiltzala, eta lasai egoten ziren etxean goxo-goxo.

Basajaun eta Basandere jentilak ziren, eta jentil guztiek bezala, izugarrizko indarra zeukaten.

Egundoko harriak jaurtitzen zituzten oooso urrutira, eta eurek jaso zituzten gure lurretako trikuharri eta harrespilak.

Hortik nator ni, Olentzero, azken jentila.

Oooooso oso aspaldi gertatu zen. Argi bitxi bat azaldu zen zeruan, aparteko pertsonaia baten etorrera iragartzen zuena: Kixmi zen.

Berarekin batera aldaketa handiak etorri ziren, eta horren ondorioz, gure espeziea, jentilak alegia, desagertu ziren. Izan ere, jentilek Kixmi iritsi zela jakin zutenean, ziztu bizian sartu ziren lurpera, ezkutura, eta gaur arte, ez da haien berri gehiagorik jakin. Desagertu egin ziren.

Ni, garai hartan jentil bihurria nintzen, ume koxkorra artean, eta ez nintzenez egoera bitxi hartaz jabetu ez nintzen gorde. Horri esker, baso hauetan bizitzen jarraitzen dut.

Basoan nengoela, neguko hotzaz akordatuaz, gogoratu nintzen gure nagusiek txondorrak nola egiten zituzten, eta ni ere, egurrikatza egiten hasi nintzen, edur eta izotz egunetan bero-bero egoteko.

Basoan egiten nuen lan. Ez zitzaidan ezer falta, banuen jateko, jazteko eta libre nintzen.

Bailaran bizi zirenen ohiturak ezagutzen joan nintzen. Zarata handia egiten zuten; neska-mutilak, zalapartatsu, barre-algaraka, saltoka eta arineketan ibiltzen ziren; nagusiek, berriz, soroetan eta ortuan lanean, gaztainak eta egurra biltzen zituzten, abereak zaindu. Negua iristean, ostera, guztia apaldu egiten zen, etxeko su-bazterrera erretiratzen ziren.

Kanpoan hotza, handia zen eta egur asko behar izaten zuten negua igarotzeko.

Baina, urte bat bereziki latza izan zen. Hotza inoiz baino lehenago iritsi zen: egunero izotza bi metrorainoko garrangekin; hogei egun jarraian edurra goian-behean eta zero azpiko tenperaturak…

Gogorra, benetan! Etxe batzuetan berandu baino lehen hasi ziren beheko sutarako egur faltan. Nik, berriz, erabiliko ez nuen ikatza sobera neukan, eta oparitu egin nahi nien, eman, baina ez nekien nola egin.

Zer pentsatuko ote zuen jendeak ni ikusi ezkero!! Nire arropa ez zen berria, bizar handia neukan, ile luzea, eta abarkak…; beno, bera lana egiten zuten, baina egia esan berri-berriak ez ziren.

Lehen baserrira gerturatu nintzen. Ate ondoan ikatz zaku bat utzi eta ikuiluan ezkutatu nintzen zer gertatzen zen ikusteko.

Ez ziren berehalakoan irten, baina irten zirenean, ikustekoa izan zen! Hango jauziak! Hango poza! Hango barre-algarak! Ederra ezustekoa! Aitajaun-amandreak, aita-amak, haurrek… alde guztietara begiratzen zuten ikatz hori nondik etorri ote zen argitu nahian. Ezin sinetsita zeuden, pozik bezain hunkituta.

Euren erreakzioak gainerako baserrietara ere zakuak ixtera animatu ninduen. Pentsatu eta egin! Atarte guztietan zaku bana utziaz joan nintzen eta denbora gutxian bailara osoan zabaldu ziren pozaren barre-algarak eta irrintziak.

Nik basotik ikusten nuen nola pizten ziren etxe guztietako beheko su txikiak. Biziki pozik zeuden eta euren esker ona erakusteko etxeko enborrik hoberena su horretan erre zuten.

Gau horretan, su eder horrek gozatu zien loa. Biharamunean, bezperan ate aurrean aurkitutako ikatzak dohain majikoak edukiko zituela pentsatuta, errautsak batu eta soroetan zabaldu zituzten uztak babesteko.

Haien zoriona ikusita, erabaki nuen urtero-urtero, egun horretan, nire oparia eramatera jaitsiko nintzela bailarara. Hori bai, gogotik egin beharko nuen lan urte guztian zehar, baina mereziko zuen.

Eta holaxe egin nuen.

Urte askoan, baserrietara jaitsi eta egurrikatza ixten nuen. Sarritan, umeak ikusten nituen etxeetako leiho-ostetan, zelatari, ni ikusi guran, urtea joan, urtea etorri opari hura nork ixten ote zien deskubritu nahian, loak hartzen zituen arte.

Baserrietan ohiko bihurtu zen gau hortako suan etxeko enborrik hoberena erretzea eta errautsak soroetan zabaltzea, gero eta dohain gehiago zituelakoan. Izan ere, pentsatzen zuten belarraren kalitatea hobetzen zuela, behi, ardi eta oiloen mesedetan; gainera izaki gaiztoak ezingo zirela erraustutako eremuetan sartu, eta ekaitzetan oinaztarriak aldentzen zituela.

Horrela, ba, denbora luzez ibili nintzen Eskoriatza, Bolibar, Apotza, Marin, Mazmela eta inguruko basoetan barrena. Atxorrotxetik Kurtzebarriraino egin nituen nire txondorrak, txondor asko egin ere.

Gaur ere, arretaz begiratzen baduzu, haietako batzuen aztarnak ikusiko dituzu; pago artean biribilgune txikitxoren bat antzematen baduzu, hor txondorra egon da, hor ni egon naiz lanean.

Inguru hauetako basoak urritzen joan ziren neurrian, urrinago joaten hasi nintzen; Gorbeia, Aralar, Urbasa, Valdorba, Irati eta beste zenbait tokitan egon nintzen, eta horrela ezagutu ditut gure ibai, mendi eta herriak, eta baita zuen guztion etxeetarako bideak ere, opariak eramateko.

Txondorrari egurra sartzen nengoen arratsalde batean hankahots ozenak entzun nituen.

Begiratu, baina ez nuen inor ikusi.

Geroxeago, adarrots modukoa entzun nuen urrunean, baina orduan ere ez nuen ezer antzemanzen.

Ametsetan, Basajaun azaldu zitzaidan eta Kixmiren etorrerak ekarri zituen aldaketa guztiak azaldu zizkidan, eta jentilak orduan desagertu zirela argitu zidan.

Ibarraundi museoa

Basajaunek Anboton ezagutu zuen Mariren berri ere eman zidan, lurraren sakonean bizi eta haitzuloetan ikusgarri den andere izugarria, haizea, eguzki, hodei eta oinaztarrien anderea.

Eta bere garaiko beste pertsonaia askoren berri ere eman zidan: Maju, Mariren laguna, Mikelats eta Atarrabi bere bi semeak, eta abar.

Nik basoaren babesa izan dut beti.

Bakarrik bizi naiz, baina ez naiz bakarrik sentitzen. Basajaun ametsetan etorri zitzaidan gau hartan ulertu nuen betidanik eduki dudala aurretik izandako arbaso guztien itzala, beraiek zaindu eta babesten nindutela. Eta haiei esker, gauez ikusi, zelatatu eta gure mugimendu guztiak zaintzen dituen Gauekok jai zeukala nirekin.

Behin, bailarara jaitsi bezperako arratsaldean, Atxorrotxeko ermitan zakuak pilatzen nenbilela, haitzuloan orkatzak, katagorriak, txoritxoak eta bestelako animaliak pilatzen zirela erreparatu nuen.

Batzar garrantzitsua zirudien. Eta halako batean, haitz gainetik andere eder bat gerturatzen zitzaiela ikusi nuen. Otarra bete belar zekarren besoan eta gaixo zeuden animaliatxoak osatzen zituen. Gaur egungo albaitarien antzekoa zen. Animaliak osatu eta pozik aldentzen ziren.

Horrela ezagutu nuen Mari Domingi, batzuen ustetan, nire bikotea, baina ez da horrela. Mari Domingi beste izpiritu libre bat da, behar duen lurra landu, animaliei erditzen lagundu, ilargiaren aldiak ezagutu eta interpretatu, eta belar, landare, edabe, ukendu eta abarrez asko, asko, aaaasko dakiena.

Bai, ba, holaxe ezagutu nuen Olentzero. Ederra hartu nuen sustoa! Zein handia zen, zein itxura basatia, baina zein begi goxoak!

Ni ez naiz basoan bizi, gertuan bai, baina basoan ez; ereiteko soroa eta gauez izarrak begiratzeko aukera dagoen tokian bizi naiz. Nire ingurua leku irekiak dira.

Ezagutu nuen arratsalde hartan, Eskoriatzara jaisteko guztia prest zeukan eta banaketara gonbidatu egin ninduen. Animalien sendatze-lana bukatu eta abiatu ginen egurrikatza banatzera.

Begiak dir-dir kontatu zidan Olentzerok gau horren bueltan pizten den poza, horrenbestekoa izango zenik imajinatu ere egiten ez nuena. Bai giro miragarria!

Ordundanik, nire eginbeharra garaiz bukatu eta banaketan laguntzen dut Olentzero. Leher eginda bukatzen dugun arren, oso asetuta ere geltitzen gara, gau horretako jendearen aurpegien poza ikusita.

Ondoren, berriz itzultzen naiz, lasai eta hunkituta, nire inguru eta eginbeharretara, belarrak bildu, animaliekin jolastu eta zeru, eguzki, ilargi, izar zein hodeien behaketara.

Baina, garaiak aldatu eta etxeetako beheko suak, txapak eta ekonomikak desagertzen hasi ziren.

Gizakumeak lantegietan hasi ziren lanean, ondoren baita emakumeak ere, sos batzuk gehiago biltzen hasi, eta ondorioz, etxeetan gero eta ikatz gutxiago behar zen. Orain, berogailuak zeuzkaten eta ez zuten nire ikatzik behar; baina ohituta nengoen eta gozatu egiten nuen jendeari opariak egiten.

Bizitza osoa neraman oparitarako ikatza egiten. Zer egin nezakeen orain? Pentsatu eta pentsatu, azkenean egurrezko jostailuak oparituko nituela erabaki nuen, nahiz eta laguntza handia beharko nuen horretarako.

Arratsalde batez, merienda jan bitartean, jolasean zebilen matxingorringo familia bati begira nengoela, harriduraz ohartu nintzen euren burutxo gorriak ordenean mugitzen zituztela, egur zatitxoak hara eta hona eramanez, saltoka, barrez eta algara bizian.

Tonua galdutako orkestra bat zirudien.

Halako batean, praketatik gora hasi zitzaizkidan. Belarrietatik tiraka, ileetatik, kili-kiliak egiten zizkidaten. Arraioa, benetan bihurriak ziren!

Buruan bueltaka hasi zitzaizkidan, galdezka, “zer behar da egin?, zer egin behar da?”

Hau poza! Momentua aprobetxatu nuen, eta zer egin gura nuen kontatu nien. Oso ideia ona iruditu zitzaien eta berehala ekin zioten lanari. Nik nola egin esan, eta hurrengo egunerako egurrezko jostailuak eginak zituzten.

Eta horrela, egunero. Zoragarria, benetan! Urte horretan, eta hurrengoetan ere, garaiz iritsi ginen opariak emateko.

Urte asko igaro dira eta hau da Olentzerorekin izandako topaketa hartatik gogoratzen dudan guztia.

Eta, tira, horrela izan da urtero, beraz, espero dut aurten ere, Galtzagorriei esker, Eskoriatzako haur guztientzako opariak izango direla, baita niretzat ere; izan ere, nire adina gorabehera, urtero idazten diot gutuna.

Ipuin hau, inguruan entzuten ditugun gehienen antzera, Jose Migel Barandiaranek jasotako kontaeren zatiak biltzen ditu; horietan dio jentilenak Jesukristoren iristearekin batera egin zuela. Juan Inazio Hartsuagak, "Euskal Mitologia Gonbaratua. Jentilen akabera" lanean, berriz, trikuharrien garaian kokatzen du, orain dela 6000 bat urte.

Olentzero lehenbizikoz Eskoriatzara iritsi zenetik 47 bat urte betetzen direnean.